



## DONOSTIA KULTURAKO UDAKO LIBURUTEGIAK

Donostia Kulturako liburutegien zerbitzuak udako hilabeteetara egokitu dira. Hain zuzen, asialdian eta denbora libreko garaian irakurketa sustatzeko aukerak berriak eskaini dituzte. Ekintza nagusiak hiru izan dira:

- Eguzkiteka, Kontxa hondartzako liburutegia
- Urgulleko liburutegia
- Intxaurrondo Kultur Etxeko liburutegiaren ordutegi berria.

Eguzkiteka hiru hilabetez egon da zabalik eta datorren larunbatean izango du azken eguna. Urgulleko liburutegiak ohiko zerbitzua eskaini du uztaila eta abuztuan zehar eta Intxaurrondo Kultur Etxeko liburutegia berriz, lehenengo aldiz abuztu osoan egon da zabalik.

Zerbitzuen eskaintza berri hau aurrera eraman ahal izateko eta oro har liburutegietan irakurketa sustatzeko, Donostia Kulturak Moyua enpresaren diru-laguntza jaso du.

### Eguzkiteka

Eguzkiteka Kontxa hondartzako liburutegia hiru hilabetez egon da zabalik, ekainaren 15etik irailaren 15era arte. 2017an hasiera eman zitzaison ekimen honi eta bi hilabetez egon zen zabalik, aurtengo udan hilabete bat gehiago iraun du ordutegi berdinarekin, astean zazpi egun, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:30era.

Eguzkiteka liburutegia Kontxa pasealekuaren azpiko espazioan dago kokatua, erlojuen parean, Donostiako uda garaiko gune nagusienetako bat. Itsasoari begira irakurtzen egotea Kontxako hondartzak udan eskaintzen duen doako zerbitzu bat da. Liburutegia osatzen duten elementu fisiko guztiak, apalak liburuekin, mahaiaik eta aulkiaik, egunaren amaieran jaso behar dira, horrela baitago arautua indarrean dagoen Kostaldeko legedian eta hurrengo goizean berriro kokatzen dira dagokien espazioan, beti ere pasealekuaren azpiko pasabidea libre gelditzen delarik.

Eguraldiaren aldaketek eragina izan dezakete liburutegien funtzionamenduan, aurtengo udan adibidez oso eguraldi ona egin du eta Eguzkitekaren kasuan irakurleen presentziak gora egin du.

2017: bositarien kopurua guztira 5.114, bositak eguneko 91,32

2018: bositarien kopurua guztira 16.290, bositak eguneko 175,16

2017: maileguak 635, eguneko 11,34

2018: maileguak 3.358, eguneko 36,10

Mailegatuenak (Eguzkitekan bertan edo hondartzan)

- Mahai-jokoak:

Arrautza dantza = Danza del huevo

Balancing boat = Aguanta, aguanta

Beehives = Abejas en la colmena

- Haur literatura euskaraz:

Pikondoaren balada / Leire Bilbao

Gizajo baten egunkaria / Jeff Kinney

Bermudetako altxorra / Steve Stevenson

- Haur literatura gaztelaniaz:

Mi amigo el gigante, Roald Dahl

La llamada de lo salvaje / Jack London

Pobre Manolito / Elvira Lindo

- Helduen literatura euskaraz

Bidean ikasia / Arantxa Urretabizkaia

Jainkoen zigorra / Alberto Ladrón de Guevara

Arrotza / Albert Camus

- Helduen literatura gaztelaniaz

Café amargo / Simonetta Agnello

El crimen del conde Neville / Amélie Nothomb

La hora de las mujeres sin reloj / Mamen Sánchez



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)

- Literatura ingelessez

- Harry Potter and the Philosopher's Stone / J. K. Rowling
- Against All Odds / Danielle Steel
- San Sebastian and the Basque Country

- Literatura frantsesez

- La disparition de Stephanie Mailer / Joël Dicker
- La vérité sur l'affaire Harry Quebert / Joël Dicker
- Petronille / Amélie Nothomb

### **Haurrentzako jarduerak**

Eguzkitekan haurrei zuzendutako jarduerak egin dira. Arratsaldero Lur Kortaren taldeak haurrentzako ipuin kontaketa saio bat eman du.

2017: ipuin kontaketetara bertaratuak 1.423

2018: ipuin kontaketetara bertaratuak 2.125

Horretaz gain, ostiraletan eta larunbatetan, mahai-jokoak antolatu dira Mestiza elkartearen eskutik 6-12 urte bitarteko haurrentzat. Jardueraren xedea irakurketara hurbiltzea izan da modu ludiko eta dibertigarrian eta aldi berean haurrengan liburutegietara joateko zaletasuna sortzea. Egindako saioetan 253 haurrek parte hartu dute. Gehien erabili diren jokoak izan dira:

- Arrautza dantza = Danza del huevo
- Balancing boat = Aguanta, aguanta
- Beehives = Abejas en la colmena
- Faraón
- Fruta-arbola = El fratal
- La tarta de los monstruos
- La torre del dragón
- Monopoly
- Speed cups
- Woolfy



## Bilduma

2018an Eguzkitekako bildumaren eskaintza gaurkotu eta berritu egin da, guztira 1829 dokumentu daude eta horien artean 1720 liburu, 60 egunkari eta aldizkari eta 49 joko. Hautaketa egiterakoan aisiaaldirako gaiak aukeratu dira eta bestalde, Donostian egun batzuk pasatzen ari den jendea izan da kontuan. Bildumaren gehiengoa literatura argitaratu berriari dagokio (% 83a, 1527 dokumentu) eta gainontzekoa dokumentu informatiboak dira, adibidez Donostiari buruzkoak eta beste hainbat gaietakoak (% 17a, 302 liburu).

Egunkariei dagokionez, Donostiakoak, tokikoak, Euskal Herrikoak, estatukoak eta nazioartekoak irakurtzeko aukera egon da, eta baita ere dibulgaziozko aldizkariak. Guztira 60 izenburu egongo dira eskura.

Bildumak bi atal nagusi izango ditu, helduak (%55a, 1010 dokumentu) eta haurrak (%45a, 819). Banaketa honetan Irakurketa Errazeko liburuak daude, hau da, edozein arrazoirengatik irakurketarako zailtasunak dituen jendearentzako liburuak.

Hizkuntzei dagokionez, %33a euskaraz argitaratutako liburuak dira (608) %52a gaztelaniaz (944 dokumentu), %7,5a ingelesez (135 dokumentu) eta beste %7,5a frantsesez. (141 dokumentu).

Liburuak eta aldizkariak bertan irakurtzeaz gain, liburuak maileguan hondartzara eramateko aukera dago, bertan irakurtzen egoteko baina Liburutegia itxi baino lehen itzuli behar dira. Liburutegietako bazkideek liburuak etxera maileguan eraman ditzakete gainontzeko liburutegietan egiten den moduan.

Liburutegiaren bilduman atal berri bat sortu da, aurten Eguzkitekan mahai jokoak eskaini dira, guztira 49 joko. Jolasaren bidez irudimena landu eta irakurketa sustatzea izan da helburu nagusia.

## Urgulleko liburutegia

Urgulleko liburutegia Damen Baterian dago kokatua eta zabalik egon da uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, ordutegia: 11:00-13:30 eta 17:00-20:00. Bi sail ditu: haurren sailean liburuak, jokoak eta Interneten nabigatzeko ordenagailuak daude. Helduen sailean berriz, gaurkotasuneko liburuak eta egunkariak. Donostia Kulturako liburutegien bazkideak eta, oro har, Irakurketa publikoko sareko



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)

bazkideak Urgulleko liburutegian dauden liburuak maileguan hartu eta etxeen irakurtzeko aukera izan dute.

Horretaz gain, haurrentzako jarduera bereziak antolatu dira, astean bi egunetan arratsaldeko 18:00etan ipuin kontaketaren ordua izan dute Lur Kortaren taldearekin.

2017 (urte osoan Aste Santua + Uda)

Bisitariak guztira: 3.325

Maileguak guztira: 423

Ekintzetara bertaratuak: 519

2018 (urte osoan Aste Santua + Uda)

Bisitak guztira: 3.400

Maileguak guztira: 450

Ekintzetara bertaratuak: 550

### **Intxaurreondo Kultur Etxeko liburutegiaren ordutegi berria**

Aurten lehenengo aldiz Intxaurreondo Kultur Etxeko liburutegia zabalik egon da abuztu osoan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara. Intxaurreondo Kultur Etxeko liburutegia ekipamendu aldetik oso ondo hornitua dago, kokagunea ere ona da, gainera igerilekua bertain dago, baina aurten arte abuztuan ez zen zabalik egoten. Bertako eta inguruko irakurleek asko eskertu dute abuztuan liburutegira joateko aukera izatea, besteak beste, irakurtzen egoteko, Interneten ibiltzeko edo dokumentuak inprimatzeko. Bisitariek eta maileguek urte osoko kopuru berdina mantendu dute.

2018ko abuztua:

Bisitariak: 3.064 Maileguak: 3.151 Eguneko maileguak: 143

2018ko liburu mailegatuenen zerrendak:

Haur literatura euskaraz

- Okindegia / Carmen Busquets
- Han eta hemen gauzak aurkitzeko liburua / Fiona Watt
- Jatetxea / Carmen Busquets

Haur literatura gaztelaniaz

- Dragonball / Akira Toriyama
- El monstruo de colores / Anna Llenas
- Planes geniales (o no) / Liz Pichon

Helduen literatura euskaraz

- Infernurantz / Esti Vivanco
- Titare bete zorion / Miren Agur Meabe
- Enigmak / Georges Simenon

Helduen literatura gaztelaniaz

- La magia de ser Sofía / Elisabeth Benavent
- Qué está pasando en Cataluña / Eduardo Mendoza
- El día que se perdió el amor / Javier Castillo



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

## LAS BIBLIOTECAS DE VERANO DE DONOSTIA KULTURA

Durante los meses de verano las bibliotecas de Donostia Kultura han realizado el esfuerzo de adecuar sus servicios a la mayor disponibilidad de tiempo libre con objetivo de fomentar nuevas propuestas para fomentar la lectura. Las principales acciones que se han llevado a cabo han sido las tres siguientes:

- Eguzkiteka, la biblioteca de la playa de la Concha
- La biblioteca de Urgull
- El nuevo horario de la biblioteca del Centro Cultural de Intxaurrendo

Eguzkiteka ha estado abierta durante tres meses y el sábado que viene será el último día de apertura. La biblioteca de Urgull ha ofrecido su servicio habitual durante los meses de julio y agosto y la biblioteca del Centro Cultural Intxaurrendo por primera vez ha estado abierta durante el mes de agosto.

Para llevar a cabo esta nueva oferta de servicios y en general para el fomento de la lectura en las bibliotecas, Donostia Kultura ha contado con una ayuda económica de la empresa Moyua.

### **Eguzkiteka**

Eguzkiteka, la biblioteca en la playa de la Concha ha estado en funcionamiento durante tres meses, desde el 15 de junio hasta el 15 de septiembre. Esta actividad se inició en 2017 con una apertura de dos meses y este año ha tenido un mes más de actividad con el mismo horario, siete días a la semana, desde las 11:00 de la mañana hasta las 19:30 de la tarde.

Eguzkiteka se ubica en el voladizo del paseo de la Concha, a la altura de los relojes, un punto neurálgico clave del verano donostiarra. La lectura mirando al mar será así un nuevo servicio totalmente gratuito en la playa de la Concha. Todos los elementos físicos que integren la Biblioteca de la playa, estanterías con libros, mesas y sillas, son retirados al terminar la jornada ya que así lo exige la normativa vigente de la Ley de Costas y a la mañana siguiente se vuelven a instalar de nuevo en su lugar correspondiente, manteniendo siempre libre el paso del voladizo.

Las condiciones meteorológicas pueden influir en la afluencia del público a las bibliotecas. Durante este verano la mayoría de los días han sido soleados y en Eguzkiteka se ha notado una mayor afluencia de público.

2017 Total visitas 5.114 Media diaria 91,32

2018 Total visitas 16.290 Media diaria 175,16

2017 Total préstamos 635 Media diaria 11,34

2018 Total préstamos 3.358 Media diaria 36,10

Materiales más prestados (En la Eguzkiteka o en la playa)

- Juegos de mesa:

Arrautza dantza = Danza del huevo

Balancing boat = Aguanta, aguanta

Beehives = Abejas en la colmena

- Literatura infantil en euskara

Pikondoaren balada / Leire Bilbao

Gizajo baten egunkaria / Jeff Kinney

Bermudetako altxorra / Steve Stevenson

- Literatura infantil en castellano

Mi amigo el gigante, Roald Dahl

La llamada de lo salvaje / Jack London

Pobre Manolito / Elvira Lindo

- Literatura personas adultas en euskara

Bidean ikasia / Arantxa Urretabizkaia

Jainkoen zigorra / Alberto Ladron de Guevara

Arrotza / Albert Camus

- Literatura personas adultas en castellano

Café amargo / Simonetta Agnello

El crimen del conde Neville / Amélie Nothomb

La hora de las mujeres sin reloj / Mamen Sánchez



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

#### - Literatura en inglés

- Harry Potter and the Philosopher's Stone / J. K. Rowling
- Against All Odds / Danielle Steel
- San Sebastian and the Basque Country

#### - Literatura en francés

- La disparition de Stephanie Mailer / Joël Dicker
- La vérité sur l'affaire Harry Quebert / Joël Dicker
- Petronille / Amélie Nothomb

### **Actividades para el público infantil**

Eguzkiteka ha contado con un programa de actividades para el público infantil. Todas las tardes a las 17:00 horas ha habido una sesión de cuenta cuentos con el grupo de Lur Korta.

2017: asistentes a las horas del cuento: 1.423

2018: asistentes a las horas del cuento: 2.125

Además, los viernes y sábados, de 12:00 a 13:00 del mediodía se han organizado juegos de mesa guiados por la Asociación Mestiza para niñas y niños entre 6 y 12 años. Con esta actividad se ofrece un acercamiento a la lectura de una forma lúdica y divertida, despertando al mismo tiempo entre las niñas y los niños el interés por acudir a las bibliotecas. En total han asistido 253 personas y los juegos más utilizados por el público han sido:

- Arrautza dantza = Danza del huevo
- Balancing boat = Aguanta, aguanta
- Beehives = Abejas en la colmena
- Faraón
- Fruta-arbola = El frutal
- La tarta de los monstruos
- La torre del dragón
- Monopoly
- Speed cups
- Woolfy



## Colección

En 2018 se ha actualizado y renovado la colección de Eguzkiteka, con un total de 1829 documentos, entre los que hay 1720 libros, 60 diarios y revistas y 49 juegos. La selección de libros responde a la idea de una biblioteca para el tiempo de ocio y para visitantes del día, con predominio de literatura de reciente publicación (83%, 1527 documentos) y libros de carácter informativo, como publicaciones sobre Donostia/San Sebastián y otras materias (17%, 302 documentos).

También hay prensa diaria local, prensa vasca, del Estado e internacional. Además de todo tipo de revistas divulgativas, que alcanzan el total de 60 títulos disponibles.

Parte de la colección se dirige al público adulto (55%, 1010 documentos) y parte al público infantil (45%, 819 documentos). En esta distribución se incluye una sección de libros de lectura fácil, destinada al público que por cualquier motivo tiene alguna dificultad para leer.

En cuanto a la distribución por idiomas, el 33% es en euskera (608 documentos), el 52% en castellano (944 documentos), el 7,5% en inglés (135 documentos) y otro 7,5% en francés (141 documentos).

Tanto los libros como los diarios y revistas se pueden leer en el espacio de la Biblioteca, además los libros se pueden llevar en préstamo a la arena para estar leyéndolos pero hay que devolverlos antes de la hora del cierre. Las socias y socios de Donostia Kultura y de la Red de Lectura Pública de Euskadi pueden coger libros y llevarlos en préstamo a sus domicilios como en el resto de las bibliotecas.

La colección cuenta con una nueva sección, este año en Eguzkiteka ha habido juegos de mesa, en total son 49 juegos. El objetivo principal consiste en que a través del juego se fomente la creatividad y la afición a la lectura.

## Biblioteca de Urgull

La Biblioteca de Urgull se ubica en la Batería de las Damas y ha estado abierta del 1 de julio al 31 de agosto, en horario de: 11:00 a 13:30 y 17:00 a 20:00. Tiene dos secciones, una para el público infantil, con libros, juegos y ordenadores para navegar en Internet. También hay una sección para el público adulto con una selección de libros de actualidad y prensa diaria. Las socias y socios de



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

Donostia Kultura y de la Red de Lectura Pública de Euskadi pueden coger libros y llevarlos en préstamo a sus domicilios como en el resto de las actividades.

Además, ha habido todo un calendario de actividades con horas del cuento dos veces a la semana a las 18:00 horas con el grupo de Lur Korta.

2017 (todo el año Semana Santa + Verano)

Total visitas: 3.325

Total préstamos: 423

Asistentes a actividades: 519

2018 (todo el año Semana Santa + Verano)

Total visitas: 3.400

Total préstamos: 450

Asistentes a actividades: 550

### **Nuevo horario de la biblioteca del Centro Cultural Intxaurrendo**

Este año por primera vez la biblioteca del Centro Cultural Intxaurrendo ha estado abierta durante todo el mes de agosto, de lunes a viernes de 10:00 a 14:00. La biblioteca del Centro Cultural Intxaurrendo está muy bien equipada, la ubicación es muy adecuada y además en el mismo edificio se encuentra la piscina. Todas estas circunstancias han favorecido que el público tanto de Intxaurrendo como de los alrededores se haya mostrado agradecido por la posibilidad de poder acudir a la biblioteca en agosto, bien a leer, navegar por Internet o imprimir documentos. El número de visitantes y préstamos realizados ha sido similar al resto del año.

Agosto 2018:

Visitas: 3.064 Préstamos: 3.151 Préstamos día: 143



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

Lista de libros más prestados en 2018:

Literatura infantil en euskera

- Okindegia / Carmen Busquets
- Han eta hemen gauzak aurkitzeko liburua / Fiona Watt
- Jatetxea / Carmen Busquets

Literatura infantil en castellano

- Dragonball / Akira Toriyama
- El monstruo de colores / Anna Llenas
- Planes geniales (o no) / Liz Pichon

Literatura personas adultas en euskera

- Infernurantz / Esti Vivanco
- Titare bete zorion / Miren Agur Meabe
- Enigmak / Georges Simenon

Literatura personas adultas en castellano

- La magia de ser Sofía / Elisabeth Benavent
- Qué está pasando en Cataluña / Eduardo Mendoza
- El día que se perdió el amor / Javier Castillo